

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingurumenak hitzarmena sinatu du Iberdrolarekin, linea elektrikoak egokitzeko eta Nafarroan hegaztiak hiltzea saihesteko

Elektrokuzioa Bonelli arranoa edo ugatza bezalako babestutako espezieen heriotzaren arrazoi nagusietarikoa da

Ostirala, 2018.eko uztailak 20

Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak, Eva García Balaguerrek gaur eguerdian lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Iberdrola enpresa elektrikoarekin, goi-tentsioko linea elektrikoak egokitzeko lanak egiteko, Foru Erkidegoan hegazti-fauna babeste aldera.

Nafarroa aitzindaria da Estatuan prebentziozko neurriak eta neurri

zuzentzaileak ezartzen, baina, linea elektrikoekin talka egitearen ondorioz sortutako elektrokuzioak babestutako hegaztien heriotzaren arrazoi nagusietarikoa izaten jarraitzen duenez, beharrezkoa da eremu guztietan elkarrekin lan egitea.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak eta Iberdrola Distribución Eléctrica enpresak, historikoki gai horretan elkarlana egiten ari badira ere, beharrezkotzat eta bidezkotzat jotzen dute hitzarmen hau egitea, abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan hegaztien fauna babesteko jasotako helburuak lortzeko ahaleginak koordinatze aldera; dekretu horren bidez, goi-tentsioko linea elektrikoetan talka eta elektrokuzioaren aurka abifauna babesteko neurriak ezartzen dira. Beraz, hitzarmena ingurumena, eta, ondorioz, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eremuan kokatzen da.

Zehazki, hitzarmenean esaten da Nafarroako Gobernuak ez ezik, Iberdrolak ere lan egingo duela 1432/2008 Errege Dekretura egokitzeko lehenetsutakoak jotzen diren lineak identifikatzen; horretarako, Gobernuak definitu eta lehenetsiko ditu jarduteko linea horiek.

Iberdrola Distribución enpresak, berriz, konpromisoa hartuko du hitzarmen hau indarrean sartu eta hurrengo 3 urteetan gutxienez 250 euskarri egokitzeko, aldeek identifikatutako lineatan.

Identifikatutako lineak eta jarduteko lineak egokitzeko irtenbide tekniko



Eva García Balaguer eta Eduardo Ryan hitzarmena sinatzeko une batean.

egokiena Iberdrola Distribución enpresak zehaztuko du, normalizatutako baldintza teknikoan arabera, aplikatu daitezkeen araudia errespetatuaz eta Nafarroako Gobernuarekin adostutako irtenbide ereduak kontuan hartuaz.

Jarraipena lankidetzan

Iberdrola Distribución enpresak, halaber, kasu bakoitzean beharrezkotzat jotako euskarriak egokitzeko konpromisoa hartzen du, haien ezaugarri teknikoak eta indarrean den araudiaren betetze-maila kontuan hartuta, hildakoak gertatu badira haren jabetzako goi-tentsioko linearen batekin talka egiteagatik edo elektrokutatzegatik. Sinatzera etorri den Iberdrolako ordezkariak, Eduardo Ryanek, enpresak iraunkortasunarekin duen konpromisoa azpimarratu du, erantzukizun sozial korporatiboan dituen politikekin eta jarraibideekin bat eginez.

laztik hasita, abifaunak linea elektrikoekin izandako heriotza-gertaera bat erregistratzen den bakoitzean, Departamentuak enpresari eskaera egiten dio, eta enpresak linea berrikusi eta egokitu egiten du kasu bakoitzean.

Araudia eta erreferentzia historikoa

Linea elektrikoak ugaritu egin dira herrien inguruetan, eta, oro har, zoru ez urbanizagarrien bitartez; hori dela-eta, maiz elkarreragiteak gertatzen dira hegaztien faunarekin, eta gizartea horien aurrean gero eta sentsibilizatuago agertzen da.

Nafarroan jakin badakite linea elektrikoek eragin negatiboa dakartela 1989tik mehatxatutako hegazti-espezientzat; urte horretan hasi ziren Foru Erkidegoan zeuden Bonelli arraunaren eta ugatzen lurraldeetan igarotzen ziren linea elektrikoaren prospekzio-lanak egiten. Lanei esker, arazoak zuen garrantzia ezagutu ahal izan zuten. Abifauna eta linea elektrikoak babesteko jarduerak etengabe egiten dira 1989. urtetik gaur arte, eta batik bat linea arriskutsuen prospekzioa eta inbentarioa egin dira, horiek zuzentzearekin batera. Denboraldi horretan, Nafarroan, lineen jabeekin egindako hitzarmenen bitartez, guztira 4.554 euskarri eta 861 alferrikako zuzendu dira.

Araudiari dagokionez, Nafarroan, 1991. urtean, 129/1991 Foru Dekretua aldarrikatu zen; hau da, "instalazio elektrikoetarako arau teknikoak ezartzen dituen hegaztien fauna babestearren".

Estatuan, 1432/2008 Errege Dekretuan ezartzen dira hegaztien fauna babesteko zonetan jarritako goi-tentsioko eroale biluziko linea elektrikoetan aplikatu beharreko arau teknikoak, abifaunarentzat elektrokuzio eta talka arriskuak murriztearen. Halaber, bertan esaten da horretarako mekanismoak eta aurrekontuak jarriko dituela Ministerioak, bertan jasotako egokitzapenen finantzaketa osoa egite aldera, baina, gaur egun, hamar urte geroago, neurri horiek oraindik ezarri gabe daude.

Bestalde, hegaztientzat Babes Zonatik igarotzen diren goi-tentsioko (≥ 1 Kv) aireko linea elektriko guztien inbentarioa eta kartografia egin berri ditu Departamentuak, Nafarroan izendatuak (abenduaren 31ko 1150/2013 Ebazpena), 1.432/2008 Errege Dekretua garatuaz; horrela, horietako bakoitzean Estatuko araudi elektroteknikoan ezarritako baldintza teknikoak betetzen diren egiaztatu da.